

2015eko APIRILAREN 13ko KANBO HERRIKO KONTSEILUKO BILKURA

Herriko Kontseilua herriko etxean bildu da, Vincent BRU jaunaren lehendakaritzapean, 2015eko APIRILAREN 13an, astelehenarekin, arratseko 20:00etan.

Hor ziren jaun-andereak: Vincent Bru, auzapeza, Bernadette Jougleux, Christian Devèze, Eliane Noblia, Frédéric Bardin, Pascale Lespade, Didier Irastorza, Eliane Aizpuru, Henri Saint Jean, axuantak, Anne-Marie Pontacq, Vincent Goytino, Christiane Hargain-Despéries, Patrice Dor, Yolande Huguenard, Argitxu Hirigoyen, Jean-Noël Magis, Corinne Othatceguy, Peio Etchelecu, Maryannick Hirigoyen, Carmen Gonzalez, Pascal Bourguet, Véronique Larronde, Camille Jenvrin, Argitxu Hiriart-Urruty, Philippe Bacardatz, Nathalie Aïçaguerre eta Pantxo Michelena, herriko kontseilariak.

Barkatuak: Jean-Jacques Lassus, Roger Barbier, herriko kontseilariak.

Ahalordea: Jean-Jacques Lassus jaunak Vincent Goytinori, Roger Barbier jaunak Didier Irastorzari.

1 – Bilkurako idazkariaren izendatzea.

Aho batez hor diren kideek idazkari gisa Argitxu Hirigoyen anderea hautatzen dute.

2 – Azken saioko bilkura agiriaren onartzea.

Auzapez jaunak Kontseiluko kideei azken 2015eko martxoaren 9an iragan zen bilkurako agiriari buruz oharrak dituztenez galdetzen die. Oharrik ez dutenez, aitzineko bilkurako agiria aho batez onartua da.

2bis – Bilkurako aipagaien osatzea.

Auzapez jaunak gai zerrendari beste biren gehitzea proposatzen du:

- **Lehen gai osagarria:** Arnagako parkeko zuhaitzei buruz segurtasun neurriak hartzea: 2015eko programaren onartzea eta diru laguntzen galdatzea
- **2. gai osagarria:** Ipar Euskal Herriko eta Seignanx lurraldeko CAF zerbitzuaren mantentzea eskatzen duen mozioa.

Aho batez onartua.

- ***Arnaga parkeko zuhaitzei buruz segurtasun neurriak hartzea: 2015eko programaren onartzea eta diru laguntzen galdatzea.***

Jaun auzapezak 2013ko irailean herriak Arnagako parkeko zuhaitzei buruzko urteko segurtasun neurri eta prebentzio obra egitasmo bat abiatu zuela zehazten du, hiru urtez iraunen lukeena (2014tik 2016ra arte), eskaera orri bidezko merkatu bat plantan ezarriz. Auprès de Mon Arbre enpresa da izendatu merkatuaren tituludun gisa. Obren lehen zatia 2014an egin zen, 39 693 euroko kostuarekin zergarik gabe, Akitaniako DRAC egiturak %40 bere gain hartu zuelarik.

2015eko programaren kostua, joan den otsailean Forêt Conseils enpresa obralariak estimu bat egin eta, zergarik gabe 18 445,81 eurokoa izanen da. Honela banatuak dira:

- Merkatuko prezio finkoaren araberako obrak: 14 185,50 €
- Adituen segipena: 2 700,00 €
- Obren segipena (%11): 1 560,41 €

Obrak 2015eko apirilean zehar egitea aurreikusia da.

Auzapez jaunak Herriko Kontseiluari parkeko zuhaitzen segurtasun obren programa ontzat ematea (obrak eta estimuak), eta DRAC egiturari (Estatua), Eskualdeari eta Departamenduari diru laguntzak galdatzea galdegiten dio.

Aho batez onartua.

- ***Ipar Euskal Herriko eta Seignanx-eko CAF zerbitzuaren mantentzea galdatzen duen mozio proposamena.***

Jaun auzapezak bere lankideei Errobi Herri elkargoko lehendakariak Ipar Euskal Herriko eta Seignanx-eko CAFaren begiratzeko mozio egitasmo bat helarazi diola jakinarazten die. Jean-René Etchegaray ACBA elkargoko lehendakari jaunaren iniziatiba da; herri elkargo bakoitzari eta osatzen dituzten herriei egitasmo horren onartzea proposatzen du. Auzapez jaunak proiektua ahoz irakurtzen du:

«Ipar Euskal Herriko eta Seignanx-eko Familia Laguntza Kutxaren geroari buruzko azken informazioek berresten dute Estatuak eta Frantziako Familia Laguntza Kutxak (CNAF) egitura oso gisa dabilen Baionako CAFa desegin nahi dutela.

Hain zuzen, joan den otsailaren 10ean Biarnoko CAFeko Zuzendariak Daniel Lenoir CNAFeko Zuzendari orokorraren gutun bat errezibitu zuen, zeinetan aitzinetik itxuratze misioaren azalpenak argi eta garbi azaltzen zizkion.

Bere galdea ondokoa zen: «Pirinio Atlantikoetako CAF berriaren aitzinetik itxuratze misioa kudeatu», «bi egituren arteko hurbiltze moldeak zehaztuko dituzu, Pirinio Atlantikoetako departamenduko Familia adarraren ekintza batasunaren bermatzeko, ... kutxa bakar baten sortzeko helburuarekin.»

Baionako CAFeko zuzendariaren eta kontulariaren postuak ez berrituak izatea egiazki Ipar Euskal Herriko eta Seignanx-eko lurraldeen kaltetan egiten da, itzulbiderik gabeko atzera egitea izanez. Paueko CAFeko Lehendakariaren adierazpenak biziki argiak eta zehatzak izan dira, ororen buru departamendu mailan Lehendakari bakarra izanen duen CAF bakar bat geldituko dela erran duelarik, eta Zuzendari orokorrak idatziak Baionako CAF historikoaren heriotzaren erabakia finkatzen du.

Sud Ouest egunkariak CNAFeko Zuzendari orokorrari, Daniel Lenoirri egin zion elgarrizketan, joan den martxoaren 11n agertua, aipatutakoa zorigaitzez bide beretik doa.

Egoera hori arras onartezina eta ulertezina da.

Baionako, Ipar Euskal Herriko eta Seignanx-eko CAF egiturak 1946 urtetik hurbileko zerbitzu publikoa izanez bete duen eginkizun historikoa **kontuan hartuz**.

Holako lurralde mailako erakunde bat tokiko garapenaren eta jendarte loturaren eragile garrantzitsuenetarik bat dela **kontuan hartuz**.

130 soldataduneko Baionako CAFaren garrantzia soziala eta ekonomikoa ikusirik, Ipar Euskal Herriko eta Hego Landesetako bizi sozialean funtsezko eginkizun bazterrezina betetzen duela **kontuan hartuz**: Gure biztanleei 294 milioi euroko laguntza eman dio, zeinetarik 22 milioi ekintza sozialerako (2013ko datuak).

Baionako CAFak Pauekoarekin bat egitea gaur egun gure herrikideek nahi dutenaren kontra doala **kontuan hartuz**.

Gainera, lurralde hau berezia dela, biziki hiri erakargarriekin, biztanle kopurua etengabe emendatzen ari dela, INSEEk plazaratu azken zenbakien arabera, bizitzeko eta lan egiteko bizi eremu zinez dinamikoa dela, mugaz gaindiko euskal nortasuna eta gaskoina kulturalki azkarrak direla **kontuan hartuz**.

Ipar Euskal Herriko eta Seignanx-eko hautetsiek

Ipar Euskal Herriko eta Seignanx-eko Familia Laguntza Kutxaren desegitea bertan behera utz dezaten eta Baionan atxik dezaten fermuki galdatzen dute.

Ipar Euskal Herriko eta Seignanx-eko Familia Laguntza Kutxa behin betiko Baionan atxikitzea fermuki galdatzen dute.

Aho batez onartua. Mozio hori Arazo sozialen eta Osagarriaren Ministroei, Prefetari, Suprefetari, Pariseko CNAFari, Baionako eta Paueko CAFeko lehendakariei, Departamenduko kontseiluko lehendakariari, ACBAko lehendakariei eta Errobi Herri Elkargoari igorriko zaie.

3 – Tokiko zergak: tasen finkatzea.

Jaun auzapezak aurten hiru zergaren tasak ez direla emendatuko azaltzen du, agiantzen zeremonian jakinarazi bezala. Tasa horiek erregularri emendatu dira 1996. urtetik. Baina joan den udako uholdeak, ukan dituzten ondorioak eta jende frankok pairatzen dituzten zailtasunak kontuan harturik, aurten ez dira aldatuko. Auzapezak gai hori finantza batzordeak aztertu duela zehaztu ondoan, Devèze jaunari hitza ematen dio.

Devèze jaunak joan den urtekoen heineko tasak atxikiko direla zehazten du, hots:

- Bizitegi zerga: 11,24 %
- Eraikitako jabetza zerga: 10,38 %
- Ez eraikitako jabetza zerga: 26,33 %.

Devèze jaunak bizitegi zergaren kasuan estratu bereko herrien aldean hartu zen beranta kasik zuzendu dela, baina eraikitako eta ez eraikitako jabetzei dagokienez, tasa horiek oraino apalegiak direla sinalatzen du. Izan ere, 1996. urtetik, %3,5ez emendatu zuten, ondotik ttipitu zena inflazioa apaldu zelako.

Finantza axuantak zehazten du inflazioaren tasa aplikatuz (%0,5) horrek arras guti eraginen zuela, eta emendatzea kontuan hartu beharra dela; 2015erako adierazi baseen balioaren berri ematen du.

Michelena jaunak joan den urtean bere taldea tasen emendatzearen kontra agertu zela ohartarazten du eta aurten emendatzerik ez izateaz kontent agertzen.

Devèze jaunak tasen emendatzearen geldiaraztea ez dela on gehitzen du, baina 2015 urterako hautu hori egin dela, biziki inflazio tasa apala dela eta.

Auzapez jaunak Devèze jauna eskertzen du eta bozkarazten.

Aho batez, Herriko Kontseiluak aurtengo tasak iazkoen heinekoak gelditzearen alde bozkatzeko du.

4 – Diru laguntzak.

Auzapez jaunak aurten diru laguntzak ez emendatzeko erabakia hartu duela jakinarazten du, beste herri batzuetan Estatuaren parte hartze murrizteengatik diru laguntza ttipitzeen kasuan ez bezala.

Elkarteei eman diru laguntzak joan den urteko heinekoak izanen dira, Herriak aztertu dituen eskakizun galderen kasuan salbu. 2015eko proposatzen den diru laguntzen zenbatekoa 315 318 eurokoa da. Zenbaki hori erlatibizatu behar da, 2015ean Turismo Bulegoari emanen zaion dirutza, 176 206 eurokoa, barne baita.

Auzapezak kontseilari bakoitzari banatu zaizkion diru laguntza proposamenei buruzko oharrik baduten galdegiten du.

Bacardatz jaunak Harmoniari ematen zaion 6 060 euroko laguntza zeri dagokion galdetzen du.

Hirigoyen andereak ihardesten du Harmoniako zuzendariaren soldaten ordaintzeko eta partizioen erosteko direla.

Auzapez jaunak duela zenbait urte murriztu zutela zehazten du.

Pontacq andereak 11 000 eurokoa izan zela gehitzen du.

Jaun merak lehenago Harmoniak udan kontzertuak antolatzen zituela eta zerbitzu ofizialetan (zeremoniak) parte hartzen zuela ohartarazten du. Egungo egunean, parte hartze bakoitzeko ordainsari bat ematen da. Lehen Harmoniak zuen herriko zeremonia ofizial guzietako animazioa segurtatzen. Baina orain batzuetan Harmoniak egiten du, besteetan herriko txarangak.

Bacardatz jaunak ikuskizunen gastuak Harmoniari ematen zitzaion diru laguntzari beste batzuei banatzeko kendu zaizkiola zehazten du.

Aïçaguerre andereak Arnagako lagunak elkarteari laguntza handia ematen diotela ohartarazten du, bere ustez ez izanik ere biziki elkarte herrikoa, antolatzen dituen ekitaldiak ikusiz.

Auzapez jaunak mintzaldiak eta bidaia kulturalak proposatzen dituen elkarteak dela erantzuten dio. Les Amis d'Arnaga et d'Edmond Rostand elkarteak 2000. urtean sortu zuten, Les Amis d'Arnaga, des Arts et de la Culture elkarteak ordezkatuz, zeinen esku sartze arloak biziki zabalak baitziren (musika eskola, Aiglou zinema gela). Horregatik elkarte horri hastapenean izan behar zuten bokazioa eman diotela, berriz Arnagaren eta Edmond Rostanden zinezko lagunak elkarrekin bilakatuz. Denboran, urtean 5 000 euroko diru laguntza atxikia izan zen elkarte horrentzat,

baina Auzapez jaunak, aitzineko bi lehendakariekin adosturik, funtzionamenduarentzat 2 000 euroko dirutza eta elkarteak Herriko Etxearekin izenpetzen dituen kontratu objektiboen arabera 3 000 euro gehiago emanen zizkiola erabaki zuen. Konparazioa, elkarteak dokumentu historikoak erosi zituen, gutunak, eta villaren eta Arnagako lorategien aurkezpen CD batean sorkuntzan parte hartuko du, hori dena herriarekin adostu ondoan. Ekintza horietan inplikatzeko gisan, elkarteak ber diru parte hartzea ematen du. Arnagako mintzaldien antolaketan ari izan da ere, finantzamenduaren zati bat bere gain hartuz. Horiek dira Auzapez jaunak Pontack elkarteko lehendakariarekin lantzen dituen kontratu objektiboak, obrak, eskuizkribuak, gutunak, mintzaldi antolaketak bideratzeko gisan. Elkartea Arnagako animazioen eragile izateko molde bat da. Orduan herriaren helburua ez da batere bidaia edo apairu batzuen antolatzeko 5 000 euroko diru laguntza ematea, baizik eta 2 000 € funtzionamendu gastuen ordaintzeko eta 3 000 € elkarekin erabaki ekintzen plantan emateko.

Pontacq andereak zehazten du elkarteko kideek berek dituztela ateraldiak diruztatzen. Joan den urtean, hezkuntza proiektuan parte hartu dute kanpoko parte hartzaile bat 1 900 € ordaindiz. Museoen Gaua kari, elkarteak mozorroen alokatzea pagatzen du, kontzertu batzuentzat pianoarena, eta kultur jarduera oro sustengatzen ditu. Kideek kontserbatzailea inbentarioaren eta museoan museografia antolatzen laguntzen dute.

Michelena jaunak elkarteak eskuratzen dituen obrak herriaren ala elkartearen jabetzak direnez galdetzen du.

Jaun auzapezak ihardesten dio erranez elkarteak obra horiek herriari ematen dizkiola. Suskripzio batentzat egiten den bezala, objektuaren jabetza osoa herriari uzten zaio.

Hiriart-Urruty andereak diru laguntza handien Turismo Bulegoari ematen zaiola ohartarazten du (176 206 €), zeinari euskal bixkotxaren bestarentzat laguntza bat (4 887 €), eta Euskal bixkotxaren kofradiari 1 500 euroko laguntza gehitzen zaizkion. Galdetzen du zergatik Turismo Bulegoari ematen zaion dirua eta euskal bixkotxaren bestarena desberdintzen ote diren.

Irastorza jaunak Turismo Bulegoarekin euskal bixkotxari buruzko hitzarmen bat izenpetu duela zehazten du. Turismo bulegoak musika taldeen, bestan parte hartzen duten elkarten eta Bigoudi pailazoaren ordaintzeko dirua aitzinatzen du. Ondotik, hiriak Turismo bulegoari gastuak diru laguntza moldean itzultzen dizkio. Euskal bixkotxaren kofradiari bere funtzionamendu gastuen pagatzeko 1 500 euroko laguntza ematen dio.

Hiriart-Urruty andereak Turismo Bulegoaren kontuen eskuratzen ahal direnez eskatzen du.

Auzapez eta Irastorza jaunek baietz erantzuten diote, publikoak baitira. Zerbitzuen zuzendari orokorarekin kontaktuan jartzea nahikoa da.

Irastorza jaunak Turismo Bulegoaren kontuekin batera, euskal bixkotxaren bestaren bilana emanen diotela.

Aizaguerre andereak jakinarazten du joan den apirilaren 11n diru laguntza galdeak aztertu zituelarik, bere taldea Kanbotik kanpoko elkarte batzuek diru laguntzarik ez zutela ohartu zela. Elkarte horiei diru laguntzarik emate eza azaltzen duen gutun bat igortzen zaienez galdetzen du. Bake Bideak eta Mediabask kazetak bere taldea kontaktatu duela zehazten du. Auzapez jaunak Beñat Inchauspérekin herri hauteskundearen kariatara ukan zuen eztabaida denboran, Hazparneko auzapezak bere herriak Bake Bideari diru laguntza bat ematen diola aipatu zuen, eta Auzapez jaunak «herri guziek bezala» ihardetsi ziola. Ordea, Kanbok ez du antolakunde horri laguntzarik eskaintzen. Galde batzuetan, horietarik bi Hazparnetik eginak, «erantzun behar diegu» oharra

idatzia izan zela, eta elkarte orori beren galdea errezibitu dela jakinarazten dien erantzun bat helaraztea normala iduritzen zaio.

Auzapez jaunak biziki iradokizun ona dela dio. Diru laguntza bat ukaiten duten elkarteei gutun bat igorriko zaie, baina ematen ez zaienei ere.

Zerbitzuen zuzendari orokorrak esku hartzen du, diru laguntzak bozkatu ondotik galdetzaile guziei baiezkoa edo ezezkoa jakinarazten zaiela erraiteko.

Hiriart-Urruty andereak Bake Bideari buruzko herriaren ikusmoldea zein den galdegiten du.

Auzapez jaunak elkarte berri batzuei diru laguntzarik ez emateko erabakia hartu dela adierazten du, Kanboko elkarteei ematen zaien dirutzaren mantentzeko gisan. Galde anitz zinez justifikatuak dira eta ez zaie denei erantzuten ahal. Mementoko, gehiengo duen taldeak orain arte diru laguntza bat ukaiten dutenekin nahikoa dela pentsatzen du.

Michelena jaunak, Kanbotik kanpoko elkarteei dagokienez, herriak galde asko errezibitzen dituela ohartarazten du, norberari etxera heltzen zaizkion bezala. Bi edo hiru urtero Gurutze gorriari, Ligue Contre le Cancer elkarteari, eta hiesaren kontrakoari emaitza bat egiten diela adierazten du. Aldi oro aldatzen du elkarte ezberdinek bere ekarpen xumearen zati bat ukan dezaten. Herri mailan plantan ematen ahalko litzatekeen molde bat da, urtero Kanbotik kanpoko hamar bat elkarteri eman ordez, gisa horretan elkarte gehiagok herriko diru laguntzak eskura litzakete. Bake Bideari dagokionez, ekintza politiko bat litzateke, preso politiko bat kanboarra baita, Lorentxa Beyrie, 2001 urtetik kartzelan dena. 27 urtera murriztu duten 32 urteko presoaldira kondenatu dute. «Bere kasuan, justizia politikoan eta ez normalean bermatuz jujatu dute». Bake Bidea zibilez, politikaz kanpoko herritarrez osatua da eta zinegotzi anitzek babes eman diote. Konponbidearen eta bakearen alde lan egiten du, presoak familiengatik hurbil ditzaten galdutuz. Herriak sinbolikoa bazen ere, ekarpen bat egiten ahalko ziola uste du, herriak desmartzarekin bat egiten duela erakusteko.

Auzapez jaunak dio justiziaren erranak ez dituela bere gain hartzen eta justiziaren jujatzera ez dela ausartuko. Kanboko preso gazte horren atxilo-aldi luzeaz ongi jakinean da. «Kanbotik kanpo aurkitzen direnei egin emaitzak urtez urte elkartetik elkartera aldatzeko» oharrari buruz, gehienek Kanbon lan bat eramaten dute (Tokiko Misioa, Familia eta jendarte laguntza, Challenge Handisport Urt Vélo, Sokorri Katolikoa, Société St Vincent de Paul, Ikas Bi, Ezpeletako biperraren sindikatua, VMEH, Eusko Ikaskuntza). «Kanbotik kanpokoak» deitzen direnei diru laguntza bat ematen zaie Kanbon zuzenki inplikatzeko baitira. Bake Bideari dagokionez, erabakia berantago hartzea proposatzen du, proposamen hori bilkuraren denboran egiten baita eta nahiagoko baitzuen lehenago egin zezaten, gehiengo duen bere taldearekin aipatu ahal izateko, eta erabakiaren ez bakarrik hartzeko. Elkarteren interesa ulertzen du, baina ezin dira elkarte guziaz diruztatu.

Hiriart-Urruty Essor Basque Kanboko ez den elkarteari diru laguntza emana zaiola harrিতua da.

Auzapez jaunak erantzuten dio Essor Basque ez dela finantzatzen Kanbotik kanpoko balitz bezala, baina Kanbon txirindula tradizio bat baita.

Irastorza jaunak zehazten du herriak lasterraldiaren antolaketaren gastuak ordaintzen dituela, beste herri guzietan bezala. Lasterketa elkarte batek baitu kudeatzen, herriaren parte hartzea diru laguntza bezala aurkeztua da. Kostua 3 500 eurokoa da abiatzea eta heltzea bertan antolatzen dutelarik, eta 1 500 edo 2 000 eurokoa abiatze edo heltze bat delarik. Aurten, Essor Basque elkarteari 40. urtebetetzearen karietara, abiatzea eta heltzea Kanbon egitea erabakia izan da. Heldu

den urtean, Kanbon abiatzea edo heltzea izanen da. Herriak tradizio hori Kanbon atxiki nahi izan du.

Michelena jaunak, Bake Bidearen gaira itzuliz, auzapezari duela hilabete bat kantonamenduan gaindi ibiltzen zelarik, anitz ebanjelizatzen zuela, eta bi itzulien artean abertzaleengandik biziki hurbil sentitu zela erraten dio. Irratiko eztabaida denboran, auzapezak zion normala zela, denek egiten zutela. Gaur, auzapezak bere taldearekin aipatu behar duela dio, normala iduritzen zaiola. Lehenago aipatu zutela uste du.

Auzapezak ebanjelizazioaren irudia berriz hartzen du zehaztuz baietz, herritar batu konbertitu dituela. Harrtua dela dio, ardura bere larderiaz erreportxu egiten diotela, erabakiak bakarrik hartzen dituela. Biltzarraren aitzinean proposamen berri bat egiten delarik, bere taldekideei ondotik berriz aipatzea beharrezkoa dela deritzo, demokrazia errespetatzea dela, bere gehiengodun taldean iritzi desberdinak dituztela eta adierazteko eskubidea dutela. Ez dio ezetz, baina gai horretaz gehiengodun taldekideekin eztabaidatuko duela.

Irastorza jaunak Barbier jaunak ahalordea eman diola jakinarazten du eta Sukilari dagokion diru laguntzarentzat bozkatu gabe gelditu nahi duela.

Hiriart-Urruty andereak galdetzen dio zergatik.

Irastorza jaunak Barbier jaunak eman arrazoia ahoz irakurtzen du: «Herriko bestak eslogan politikoak agertzen dituzten zigante desfile bat antolatuz alaitzen dituela pentsatzen duen elkarte batentzat ezin dut bozkatu».

Auzapez jaunak bozkarazten du.

Gehiengo batek diru laguntzen alde bozkatzen du. Kontra bozkatu dutenak: Hiriart-Urruty eta Aïçaguerre andereak, Bacardatz eta Michelena jaunak. Barbier jauna Sukilari dagokion diru laguntzarentzat bozkatu gabe gelditzen da.

5Diru laguntzak CCAS eta Eskolen Kutxa egiturei.

Devèze jaunak proposaturik, Herriko Kontseiluak aho batez CCASen alde 575 000 euroko eta Eskolen Kutxari 8 000 euroko diru laguntzak ematea erabakitzen du.

6 – 2015eko jatorrizko diru laguntzen bozkatzea.

Devèze jaunak jatorrizko buxeta egitasmoak finantza batzordeak joan den martxoaren 31n aztertu zituela zehazten du.

➤ Buxeta nagusia

Devèze jaunak buxeta nagusiaren 2015eko jatorrizko proiektua aurkezten du, artikuluz artikuluz; funtzionamendu sail desberdinetan 6 207 039 euroko zenbatekoan orekatzen da, eta inbestizamenduarena 3 736 000 eurotan. Lanpostu adierazgarrienak komentatzen ditu.

Hiriart-Urruty andereak hautetsien erretreta kotizazioaren emendatzeaz bere harridura adierazten du, 8 000 eurotik 19 800 eurora pasatu baita.

Devèze jaunak lurralde kolektibitateen kodeko L.2123-27 artikulua bertutez kolektibitatearen betebeharraren arabera egindako erregulazio bat dela ihardesten dio. Artikulu

horrek herriak hautetsiaren parte hartzearen erdiaren balioa bere gain hartu behar duela zehazten du, ordainsariaren zenbateko gordinaren arabera kalkulatu delarik. Zinegotziek beren ordainsarien %4,6 edo 8ko heinean kotizatzen ahal dute, eta kolektibitateak hein hori gainditu gabe kotizatu behar du.

Aïçaguerre andereak hautazkoa denez galdegiten du.

Devèze jaunak hautazkoa dela erantzuten dio. Hautetsiak du erabakitzen eta kolektibitatea ber dirutza ematera hertsatzen du. Organo erabakitzailerak ez du biltzeko beharrik bere parte hartzearen baldintzen finkatzeko. CGCTren L.2123-27 artikulua dela medio baitezpadakoa da.

Aïçaguerre andereak baremoak badirenez galdetzen du.

Devèze jaunak kotizazioa %4, 6 edo 8koa izan daitekeen ehunekoaren arabera kalkulatzeko dela zehazten du. Errobiko Lantegiko Sindikatu Mistoak (SMUN) zuen hori proposatu eta interesatuak liratekeen pertsona guzietan aurkeztu zien.

Michelena jaunak aipatzen diren zinegotziek erretreta sari ederra ukanen dutela ohartarazten du.

Devèze jaunak kotizazioa horren hartzaileari ber zenbatekodun ordainsariaren arabera egozten zaiola azpimarratzen du.

Auzapez jaunak hautetsien eskubidearen parte dela gehitzen du.

Michelena jaunak jakinarazten du Uztaritzen gastu hori 3 368 eurokoa dela, Kanbon 20 000 eurokoa delarik.

Hiriart-Urruty andereak bidaiak eta desplazamenduak aipatzen dituen 6251 artikuluan agertzen diren 7 700 euroak zertan gastatuak izan diren galdetzen du.

Auzapez jaunak batez ere bilkura eta formakuntza saio batzuetan parte hartzen duen Arnagako kontserbatzailearen desplazamendu gastuen ordaintzeko izan direla jakinarazten du. Pariseko Auzapezen Kongresura joaten delarik, herriak bidaia gastuak baizik ez ditu bere gain hartzen, aitzinetik hartzen dituzenez, ez baitira biziki garestiak.

Devèze jaunak aurreikuspen bat dela zehazten du.

Pontacq andereak gehitzen du kontserbatzailea Maison d'éccrivains elkarteko bulegoko kide dela, eta ondorioz bi hilabetero Parisen bilkurak badituela. Horrez gain, hilabeteetan behin biltzen den Akitaniako kontserbatzaileen elkarteko kide da. Langile horrekin Parisera bilduma batzuen eramatera joan dadin gertatzen da. Kasu horretan, herriko autoa erabiltzen dute, eta Pontacq anderea Maison d'éccrivains elkartearen topaketetara joaten delarik, bidaia eta egonaldi gastuak beti bere kabuz ordaintzen ditu. Araudiaren arabera, obren tokialdatzeaz gutienez bi pertsona arduratu behar direla zehazten du. Bidaia horiek herriko autoarekin egiten dituzte eta Pontacq andereak Parisen familiarekin moldatzeko ahalbidea baitu, ez du lo egiteko gasturik.

Devèze jaunak gastuak herriak bere gain hartu beharko lituzkeela uste du. Horrek ez duela herriaren buxeta kaltetuko.

Hiriart-Urruty andereak kontserbatzaileak txartelak aitzinetik hartzen ahalko lituzkeenez galdetzen du, prezio interesgarriagoan ukaiteko gisan, bere aburuz kario baitira.

Devèze jaunak zehazten du 2014ean artikulu horri dagokion despendioa 5 333 eurokoa zen, 2013an 7 593koa (Vleber margolanen eskuratzeko gainkostua barne). Karguak gehiegizkoak dira. Jadanik erran bezala, gutiago xahutu beharko litzateke.

Bacardatz jaunak eskatzen du zergatik herriak aurten 1 000 000 euroko mailegua egin duen, iaz ez baitzuen holakorik erabaki. Helburua aurrekontuaren orekatzea ote da?

Devèze jaunak 2 306 000 eurokoa den ekipamendu kostu gordina ez dela autofinantzatua erantzuten dio. Buxetaren orekatzeko, mailegu bat egitea nahitaezkoa da.

Bacardatz jaunak gehitzen du egiazki heldu den urteari begira herriak beste mailegu baten egiteko xedea duenez jakin nahi zuela, herriaren zorrak emendatuko bailituzke.

Devèze jaunak ihardesten dio ezetz. Herriak ez du urtero milioi bat euro mailegatuko.

Bacardatz jaunak suposatzen du mailegua herriak eginen dituen obren finantzatzeko izanen dela.

Devèze jaunak erantzuten dio baietz. Aurten herriak 2 306 000 € obra eginen du.

Bardinek herriak milioi bat euro obra egiten balu, mailegurik egiteko beharrik ukanen ez lukeelako oharra egiten du.

Devèze jaunak herriak *Coeur de ville* deitu duen egitasmoa bururatu behar duela erraten du. Diru laguntzarik gabeko 1 000 000 euroko bide lanak aurreikusiak dira.

Auzapezak zehazten du herriak 33 000 euroko diru laguntza bat eskuratzen duela obren gauzatzeko. Aurten bideen antolamendu mailan handinahizko politika baten obratzea erabaki da.

Bacardatz jaunak aurten hiri barneko proiektuari dagozkion obrak bide lanekin ordezkatuak izan direlako oharra egiten du.

Devèze jaunak Bardin jaunaren oharrari baizik ez diola erantzun zehazten du, programak bururaino eraman behar direla gehitu aitzin.

Bacardatz jaunak azpimarratzen du aurten bide lanei dagokien inbestizamenduen %35 Arnagan eginen direla.

Devèze jaunak 625 000 euroko diru laguntzen zati handi bat Arnagako obretarako erabiliko dela zehazten du.

Bacardatz jaunak heldu den urteko obrak hiri barneko antolatzeak izanen direla adierazten du, xahutze hori herriak bere kabuz finantzatzen ahalko duen galdetu aitzin, joan den urtean mailegurik ez baitzuen egin, eta aurtengo buxeta 1 000 000 euroko maileguak osatzen duelako.

Auzapezak aurten mailegua erabaki bada, 2016 urtearentzat aitzinetik ez dela jakiten ahal erantzuten dio.

Hiriart-Urruty andereak galdegiten du herriak beti Oussimendia auzoko lurraren saltzeko asmoa duenez, eta salmenta horrek obren finantzatzeko ahalik emanen duenez. Kutxak hutsik daude, eta horregatik ditu herriak lur peza horiek saltzen, galdezka ari da Hiriart-Urruty.

BRU jaunak hitza hartzen du, auzapez gisa hautatua izan denaz geroztik ez baitzaio iduritzen Kanboko finantzak zailtasunetan ezarri direnik, eta egitasmo hori 2016ko xedeetan sartzek finantzatzeko ahala aurreikusirik dutela erran nahi duela errateko. Mementoko, Herriko Kontseiluari 2015eko aurrekontuaren bozkatzea zaio galdatzen.

Devèze jaunak buxeta orientabideei buruzko eztabaida egin zelarik hiriaren engaiamenduak handiak ez zirela erakutsi zela zehazten du. 1 000 000 euroko maileguarentzat, %1,5eko interes tasa lortuko duela espero du, herriaren kontuek hainbateko kredituak baitituzte, eta ratioak alde baititu.

Simon lur pezari doakionez, Hiriart-Urruty andereak xahutze handiegia dela pentsatzen du (150 000 €). Errobi Herri elkargoak jende ibiltariendako 100 tokitako gune bat sortuko duela jakinarazten du, 150 000 € kostako dena. Eremu horian zenbat aparkatzeko toki egingen diren galdetzen du.

Auzapez jaunak zehazten dio ibiltariendako gunearen antolamenduaren kostuak hiru edo lau urte dituela, eta orain arte ez dela berritu. Jende ibiltariendako guneentzat ez da ekipamendurik, kontainerrak baizik ez dira ezarriko. Simon eremuari dagokionez, hiru tokietarako sarbideen antolatze eta hiru eremuen ekipamendu obrak izanen dira. Horren orde, herriak auzo horren sartzean lur bat badu, zeinetan beharrezkoa izanen delarik, epe laburrean aparkaleku bat egingen den. Hiru lurren antolaketa eta bide lanen gauzatze kostua hiriko zerbitzu teknikoek dute kalkulatu. Herriak, eremu hori atxikiz geroan bertan interes publikoko eraikin bat eraikitzen ahalko du.

Hiriart-Urruty andereak karabana lekuari buruz hastapenean 280 000 euroko xahutzea aurreikusi zela eta buxeta orrian 34 000 € baizik ez direla agertzen.

Devèze jaunak erantzuten dio erranez emendakina azterketa gastuei dagokiola.

Auzapez jaunak zehazten du gune horren antolaketa ez dela 2015ean egingen. Gogoeta baten eramaten ari dira garrantzitsua den jarduera horren kokalekuari dagokionez.

Hiriart-Urruty andereak dio: «Buxetan aztertze gastuak baizik ez dira idatzi, Christian Devèzek erran bezala».

Auzapez jaunak zenbateko hori idatzia izan dela zehazten du lurralde kontratuaren barnean pentsatuak diren laguntzen lortzeko aukera duelako, gauzatzea 2015 edo 2016 urteetan hasi beharko da. Despendioa 2016ko azaro bukaerako hetsi behar da.

Hiriart-Urruty andereak galdegiten du beste lekurik atzeman den ala ez.

Auzapez jaunak erantzuten dio beste proposamen batzuk egin direla eta zerbitzu teknikoak aztertzen ari dira, baina ez da oraino erabakirik hartu.

Michelena jaunak aurrekontuaren aldean, finantzamendu berezi bat behar duen eta buxetan aurreikusia den funtzionamendu mailako egitasmorik badenez. «euskara – birazkatzea» batzordeak 10 000 euroko aurrekontua pentsatu zuen 2015 urtean gauzatu beharreko hainbat ekintzarentzat. Ez daki hori buxetan agertzen denez, eta buxetan kontuan hartutako eta buxeta nagusiaren kapitulu desberdinetan banatutako beste kultur, jendarte... egitasmorik badenez galdegiten du.

Devèze jaunak funtzionamendu sailean finantzamendu berezi bat kontuan hartzen duen gasturik ez dela sekulan aurreikusi zehazten du. Artikulu bat bada: aurreikusi gabeko spendioak izendatu artikulu bat bada gastu osagarrien diruztatzeko.

Michelena jaunak erraten du bere galdera ez zela zenbakiei buruzkoa, jakin nahi zuen gehiengo duen taldeak proiektu adierazgarririk erabaki zuenez.

Devèze jaunak ihardesten dio ezetz.

Auzapez jaunak gehitzen du agorrilean ekitaldi egitasmoak badirela eta horretarako gastuak estaliko dituen irabaziak aurreikusiak direla. Herriak Benito Lertxundi jinaraziko du datorren agorrilaren 13an, eta agorrilaren 14 eta 15eko beste gertakari baten apailatzen ari da.

Bacardatz jaunak irabazietan DRAC egituraren zatia non agertzen ote den galdetzen du.

Devèze jaunak erantzuten dio ondoko ataldean agertzen direla: Estatuaren diru laguntzak.

Bru jaunak zehazten du Arnagako lorategien eta parkearen zaharberritzeko honela banatu duen %80eko laguntza ukan duela: DRACetik %40, eta Eskualdearen eta Departamenduaren artean banatutako beste %40.

Auzapez jaunak bozkarazten du.

Funtzionamendu saila, 6 207 039 eurotan orekatua, aho batez onartua da. Ez bozkatzea erabaki dutenak: Hiriart-Urruty eta Aiçaguerre andereak, Bacardatz eta Michelena jaunak.

Inbestizamendu saila, 3 736 000 eurotan orekatua, aho batez onartua da. Ez bozkatzea erabaki dutenak: Hiriart-Urruty eta Aiçaguerre andereak, Bacardatz eta Michelena jaunak.

➤ **Saneamenduaren aurrekontu gehigarria**

Devèze jaunak saneamendurako 2015eko jatorrizko aurrekontu proiektua aurkezten du; funtzionamendu saila 483 949 euroko zenbatekoan orekatzen da, eta inbestizamenduarena 2 704 007 eurotan.

Bacardatz jaunak funtzionamendu sailean agertzen diren 2 400 euro ordainsariak zeri dagozkion galdetzen du.

Devèze jaunak erantzuten dio erranez herriak Pintat andereari ordaindu behar dizkiola, zerbitzu publiko ordezkariaren prozeduran ordezkariaren hautatzeko lagundu baitu.

2015eko saneamendu kolektiboko jatorrizko buxeta gehigarria aho batez onartua da.

➤ **SPANC zerbitzuaren buxeta gehigarria**

Devèze jaunak bere lankideei oroitarazten die saneamendu ez kolektiboaren gaitasuna 2014ean URA Sindikatuaren esku eman zela.

SPANCen 2015eko jatorrizko buxeta, funtzionamendu saila baizik aurkezten ez duena, 5 038 eurotan orekatzen da. Buxeta aho batez onartua da.

➤ **Kolunbario soto ttipien buxeta gehigarria**

Devèze jaunak funtzionamendu saila baizik ez duen kolunbario soto ttipien 2015eko jatorrizko buxeta aurkezten du: 111 377 eurotan orekatzen da. Buxeta hori aho batez onartua da.

Auzapez jaunak Christian Devèze eskertzen du egin duen aurkezpenarentzat, zerbitzuen zuzendari orokorra partaide izan baitu, baita langile guziak ere, bereziki kontularia, finantza axuantak eta zerbitzuen zuzendari orokorrak akuilaturik, buxeten dokumentuak prestatu baititu. 2015eko buxeta zentzuzkoa da murrizketa baldintzak izanagatik ere. Bereziki bide lanei dagokien inbestizamendua handia da, kanboarren xedeei erantzuteko.

7 – Herriko ikasle laguntzak.

Axuant orde den Saint Jean jaun medikuak arazo sozialen batzordea 2014-2015 ikasturteko herriko ikasle laguntza galdeen aztertzeko joan den martxoaren 11n bildu zela adierazten du. Esleitze irizpideei dagokienez, Estatuak ematen dituen laguntzak kontuan hartu ditu eta Estatuko burtsaren %15 banatzea proposatzen du. Pausatuak izan diren 20 galdeetatik, bi dossierrek ez zuten Estatuko ikasle laguntzarik ukan, batak familia kozientea gaintitzen baitzuen batzordeak ez du onartu, bigarrena erizain eskola batean sartzeko konkurtoaren prestatzeko eskola batean izen emateari dagokio; formakuntza horrek ez du Estatuko laguntzen hunkitzeko ahalik ematen. Familia kozientea zinez apala denez, batzordeak herriko burtsa baten ematea erabaki du.

Batzordeak 20 galdeetarik 19 onartu ditu, orotara 9 000 euroko diru kopuruaren banatzeko.

Auzapez jaunak bozkarazten du.

Aho batez onartua.

8 – Egonaldi zerga: prezioak eta dispentsak

Irastorza axuant orde jaunak azaltzen du:

Legebiltzarrak 2014ko abenduan bozkatu 2015 urterako finantza legeak egonaldi zergaren gutieneko eta gehieneko prezioak finkatzen ditu. Beraz, legearekin bat egiteko gisan, kanpalekuei buruzko prezioak aldatu behar dira: izar bat, bi edo hiru dituztenenak.

Bestetik, Errobiko lurraldean zerga egonaldiaren prezioen harmonizatzeko kezka baitugu, Errobi Herri elkargoak bere lurraldean prezioen berdinketa bat proposatzen du.

Legeak ez ditu «landetxeak» eta «aisialdiendako bizitoki arinak (HLL)» kategoriak kontuan hartzen. Landetxeen kasuan mublaturik dagozkien prezioak aplikatzen dira, eta HLLentzat kanpalekuei dagokienak.

Auzapez jaunak bozkarazten du. 2015 eta 2016 urteetako egonaldi prezioak aho batez onartuak dira.

Dispentsak

2005eko apirilaren 28ko deliberoaren bidez, Herriko Kontseiluak ondoko kategoriei egonaldi zerga dispentsak erabaki zituen:

- 13 urtez petikako haurrak,
- gerlaren ondoriozko eri, mutilatu eta zaurituak bereziki laguntzen dituzten presunak,
- udalekuak eta haurrentako opor kolektibo egiturak,
- Ekintza Sozialaren eta Familien Kodean zehaztu jendarte laguntza bideen hartzedunak. Hauek ondokoak dira bereziki: etxerateko laguntza ukaiten duen adinekoak eta

enbaldituak, ezindura karta bat dutenak eta diru, familia, aloimendu, osagarri edo jendarteratze arazo larriak dituztenak,

- beren lanerako epe bateko egonaldi bat egin behar duten Estatuaren funtzionarioak eta langileak.

Familia handietako kideek SNCFen prezioen arabeko beherapen berak dituzte, erran nahi baita:

- 18 urtez petikako 3 haurretako familientzat %30
- 18 urtez petikako 4 haurretako familientzat %40
- 18 urtez petikako 5 haurretako familientzat %50
- 18 urtez petikako 6 haurretako familientzat %70.

Jagoitik, dispentsatuak izateko eskubide osoa dutenak:

- adingabekoak,
- herrian sasoineko lan kontratua duten langileak,
- larrialdian edo epe mugatuko aterpetuak direnak,
- biltzarrak erabakitzen duen zenbatekoa baino alokairu apalagoa duten bizitegietan bizi direnak. Errobi Herri elkargoak prezio hori 300 eurotan finkatua izan dadin proposatzen du.

Dor jaunak galdetzen du tasen emendatzeari buruz zergatik harmonizatze hori eskatua den.

Irastorza jaunak gogoeta bat eramateari erantzuten diola erantzuten dio, Errobi Herri elkargoak turismoaren ahalmena hartuko baitu. 2015eko ekainetik aitzina, ahalmen hori ezinbestean Herri elkargoaren esku utziko da. Errobiko lurraldean, herri askotan ez da egonaldi zerga ezarri, orduan harmonizatze hori aurreikusia da.

Dor jaunak kategoria batzuen kasuan emendatzea handia zela, %10 baino gehiagokoa, ohartarazten du. Eman argudioen arabera, emendatze horrek harritzen du.

Irastorza jaunak jakinarazten du Kanboko prezioak ez zirela gehiago legeak behartzen duen tartean kokatzen.

Auzapez jaunak bozkarazten du. Aho batez onartua.

9 – Baliarik eza erabakitzea

Devèze jaunak dio 2015eko otsailaren 16ko gutunaren bidez, Martin diruzain andereak herriari jakinarazten diola, 2015eko urtarrilaren 29ko ordenantzaren bidez, Baionako Instantzia Auzitegiak DUPRE Sandra anderea bizkortze pertsonal prozeduran deklaratu duela. Ondorioz, mediatekari liburu batzuk ez baititu itzuli ordainarazi nahi zitzaion 15,70 euroko zenbatekoa baliogabetu behar da.

Herriko Kontseiluari 2014-T-621-1 errezetaren kontu izan behar zen 15,70 euroko diru kopurua baliogabe bezala onartzea galdegiten zaio.

Jaun auzapezak bozkatzea galdegiten du. Aho batez onartua.

10 – Ama eskolako arraberritze obrak: kontrol tekniko eta SPS misioak.

Juggleux andereak azpimarratzen du 2015eko udako bakantzetan egin beharko diren Chantecler ama eskolako obren karietara, kontsulta bat irekia izan dela kontrol tekniko eta SPS koordinaketa misioez. Obren aurrekontu estimatua 210 000 eurokoa da zergarik gabe.

Lehen zatiarentzat herriak bost gutun azal eskuratu ditu: kontrol tekniko misioarentzat; zortzi gutun azal bigarren zatiarentzat: SPS koordinaketa misioarentzat.

Eskaintzak aztertu ondotik, ondokoaren atxikitzea proposatzen da:

- lehen zatiarentzat: APAVE SUD EUROPE, 2130 euroko kopuruarentzat zergarik gabe, erran nahi baita 2556 € zerga guziak barne.
- bigarren zatiarentzat: ELYFEC S.P.S. 615 euroko kopuruarentzat zergarik gabe, erran nahi baita 738 € zerga guziak barne.

Juggleux jaunak Herriko Kontseiluari atxikiak izan diren lantegiekin merkatuen izenpetzeko baimena Jaun auzapezari ematea galdegiten dio.

Jaun auzapezak bozkatzea galdegiten du. Aho batez onartua.

11 – Ad’APeren egitea: ikerketa bulegoa

Juggleux jaunak azaltzen du:

Presuna ezinduen sartzeko erraztasunari dagokion 2005ko legeak 2015ko urtarrilaren 1era finkatu zuen publikoari irekiak diren eraikin guzietan (ERP) sartzeko erraztasuna segurtatua izan dadin. Baliabide horri antolamendu batzuk eginak izan arren, sartzeko erraztasunaren betebeharra ERPtan berriz baieztatua da. Ondorioz, ERPentzat, Publikoari Irekiak diren Muntadurentzat (IOP), baina ere 2014ko abenduaren 31ean sartzeko erraztasunik ez zuten garraioentzat, Sartzeko Erraztasun Egutegi bat (Ad’AP) ezinbestekoa da. Ad’AP hori ERP, IOP eta garraio publikoetako sartzeko erraztasun obren egutegi bat da, frogagiri batekin *in fine*. Dokumentu zorrotz hori, 2015eko irailaren 26ko nahitaez suprefeturan pausatua izan behar da. Ad’AParen egiteko, sartzeko erraztasun gaian aditua den ikerketa bulego baten ahalmenetan bermatzea gomendatua da.

Joan den urtarrilaren 21ean, lehen kontsulta bat irekia izan zen, baina prozedura hori ezeztatua izan zen lehia eskasez.

2015ko martxoaren 10ean, kontsulta berri bat ireki zen. Hiru gutun azal eskuratu dira:

- QCS Services SA – proiektuburu dedikatua Emmanuel Gourdet Baionan + EQUILIBRE sozietatea St Paul les Dax hirian, Marc Tollis eta Lionel Voinsoin arkitektoak,
- SELAARL JOPPIN Angelun eta Donibane-Garazin arkitekto + SEPA Baionan + SOCOTEC Baionan,
- ASSOCEXPERTISES SAS CDA 64 – M. Cesat Iker Baionan + CALBO Baionan arkitekto: Le Boedec Boulan Marthe.

Juggleux andereak azpimarratzen du herriak zerbitzu hautazko edo alternatibo gehigarri bat eskatu zuela, hain zuzen hautagaiak herriko ERP eta IOPen «lekuaren egoera-akta» plano baten egiteko gastuaren proposamendu bat aurkeztu zezan. Izan ere, herriak eskutan dituen planoak osatugabeak edo okerrak dira, eraikin gehienetan eginak izan diren unetik aldakuntzak izan baitira.

Kontuan hartuz:

- «Lekuaren-egoera akta» planoen egiteari lotua den zerbitzu gehigarriak merkatuaren kostua anitez emendatzen duela,
- herriko eraikin guzien planoen egitea ez zaiola baitezpadakoa iruditzen, baina beharren arabera,
- Ad'Ap dokumentuaren pausatzeko salbu dossier berezi batzuk, eskalarik gabeko krokisak baizik ez direla beharrezkoak,

Herriko Kontseiluari proposatua zaio:

- Zerbitzu gehigarriak ez hautatzea,
- QCS SERVICES/ EQUILIBRE Sozietate elkargoaren eskaintza hautatzea, 22 475 euroko diru kopurukoa zergarik gabe, erran nahi baitu 26 970 eurokoa zerga guziak barne.

Jougleux jaunak Herriko Kontseiluari QCS SERVICES/ EQUILIBRE Sozietate lantegiarekin merkatuaren izenpetzeko baimena Jaun auzapezari ematea galdegiten dio.

Jaun auzapezak bozkatzea galdegiten du. Aho batez onartua.

12 – Justizian jaukitzeko gaikuntza

Jaun auzapezak Herriko Kontseiluari bi deliberamendu hartzea proposatzen dio: gaikuntza orokor bat eta bidean dagoen afera bati buruzko gaikuntza bat, Mayalen Nobliaren aferari buruzkoa hain zuzen.

Justizia orokorrean jaukitzeko legezko gaitasuna

Hain zuzen, Noblia aferan Etchegaray Kabinetea eta Kideak herriko abokatarekin, agertu da 2014ko apirilaren 7an hartu deliberamenduan, kargualdiaren iraupenerako auzapezari emana izan zaion ordezkari zela. Horregatik jaun auzapezak irakurtzen du herriko abokatarengandik zinegotziek eskuratu duten deliberamendu proposamendu berria:

«Ikusiz Lurralde kolektibitateen Kode orokorra eta bereziki L. 2122-22 16° eta L.2132-1 artikulua;

Ikusiz barne den afera guzietan herriaren defenditzeko eskubidea Jaun auzapezari eman behar zaiola;

Herriaren izenean jaun auzapezari justizia ahalmenen aitzinean jaukitzeko ordezkari zela ematen zaio, zibil, administratibo zein zigor auzitegietan, bai eta justizia ahalmen errepresiboetan salaketak egiteko eta parte zibil gisa plantatzeko zigor auzitegien aitzinean, eta ere herria defenditzeko bere aurka zibil, administratibo eta zigor auzitegietan jaukiak diren ekintza guzietan, izan dadin lehen, dei eta kasazio auzietan».

Aiçaguerre andereak afera bakoitzean Herriko Kontseilua jakinean emanen denez galdegiten du.

Jaun auzapezak edozein ordezkari zela ekintzen bilduma bat eskatzen duela ihardesten dio.

Aiçaguerre andereak, auzitegira joan aitzin, Herriko Kontseilua jakinean izanen denez galdegiten du.

Jaun auzapezak dio salaketen kasuan, horien berri gero ematen ahalko duela zinegotzietan, ezin baita Herriko Kontseiluaren bilkuraren beha egoten ahalko dela ere.

Jaun auzapezak bozkatzea galdegiten du. Gehiengoak aldeko boza ematen du. Ez dute bozkatzen: Hiriart-Urruty eta Aïçaguerre andereek, Bacardatz eta Michelena jaunek.

Noblia aferari dagokionez justizian jaukitzeko gaikuntza.

Maialen Noblia anderearen eta Herriko Etxearen artean dagoen auzian Kanboko Biperduna izeneko gunean eraikitzen ari den berotegiari dagokionez, Noblia andereak 2010ko abenduaren 16an eraikitze baimen bat pausatu zuen baimenik gabe hasitako obren erregulartzeko xedearekin.

2011ko martxoaren 24an, auzapezak erabaki bat hartu zuen, bere etxaldean laborantza bastimendu baten eraikitzeko obrak segidan gelditzeko agindua Noblia andereari adierazten ziona.

2011ko apirilaren 11n, eraikitzeko baimena errefusatzeko erabakia hartu zen.

Noblia andereak erabaki hori Administrazio Auzitegira jauki zuen, horrek baztertu zuelarik Noblia anderearen salaketa 2013ko irailaren 17an hartua izan zen erabakian.

Noblia andereak erabaki horretaz hel egin zuen, eta Dei Auzitegiak Administratibo Auzitegiaren jujamendua baieztatu zuen Noblia anderearen galdea berriz baztertuz. Ondorioz Kasazio Auzitegian hel egin zuen.

Abokatu orokorrak, Noblia anderearen errekursoaz joan den urtarrileko 20eko ondorio idatziak eman zituen, non Paueko Dei Auzitegiak erabakiaren hauste bat proposatzen zuen, Auzapezak ez baitu auzi horri buruz Herriko Kontseiluak eman zion gaikuntzarik frogatu.

Horregatik Jaun auzapezak Herriko Kontseiluari auzi horretaz deliberamendu bat hartzeko proposamendua luzatzen dio, zinegotzietan proposatua izan zaien delibero hitzetan, testu honen irakurketa egiten duelarik:

«Ikusiz Lurralde kolektibitateen Kode orokorra eta bereziki L. 2122-22 16° eta L.2132-1 artikulua;

Ikusiz KANBOKO herria NOBLIA anderearekin auzitan dela 2010az geroztik, urte hortan herrizaintzako gizonen eraikuntza obra leku bat egiazat eman zutela urbanismoaren Kodeko L.421-1 artikulua ez ezagutzearen arabera.

Baimenik gabeko obren egiteaz NOBLIA anderea hobendun ezarri zuela Baionako Delituen Auzitegiak eta Herria parte zibil bezala antolatzea onuragarritzat deklaratu zuela 2012ko irailaren 13an;

Ondorioz, NOBLIA anderea 5000 euroko isun baten ordaintzera kondenatua izan zela, horietarik 3000 euro gibelapenarekin, aiantzi gabe 500 euro KANBOKO herriari isuri beharra damu domatia eta interesen izenean eta 500 euro zigor prozedura Kodeko 475-1 artikulua arabera.

Paueko Delituen Dei Auzitegiak jujamendu horren neurri zibilak baliogabetu zituela, 2014ko maiatzaren 15eko erabakiaren arabera, aitzinatu obren desegitea aginduz.

NOBLIA andereak erabaki horren aurka kasaziora hel egin zuela eta gaur egun prozedura trenkatu gabea dela.

Zigor prozedura horrez gain, NOBLIA andereak Administrazio Auzitegira jo duela.

Egia dela, 2011ko apirilaren 11ko erabakiaren arabera, jaun auzapezak dagoen berotegian obra batzuen egiteko eraikitze baimena debekatu ziola NOBLIA andereari;

Debeku hori Paueko Administrazio Auzitegiak erregularra zela erabaki zuela 2013ko urriaren 1eko 1102036 zenbakia duen jujamenduaren bidez, Bordeleko Dei Auzitegi Administratiboak baieztatu zuena 2015eko martxoaren 10eko 13BX03387 zenbakia daukan erabakiaren bidez;

Horiek hola, KANBOKO Herriak 2014ko apirilaren 7an hartu zen deliberamenduaren ondorioa azpimarratu nahi du, horren eraginez jaun auzapeza Herriaren ordezkatzeko baimendua izan baita herria parte zibila den instantzia guzietan;

Ondorioz, Herriko Kontseiluak Jaun auzapezari baimen berezia ematen dio, delegazio horren bidez, Noblia anderearen aurka jaukia den zigor aferan herriaren ordezkatzeko, afera hori 2010 urtean legez kanpo Noblia andereak hasi zituen obrei lotua delarik.»

Jaun auzapezak bozkatea galdegiten du. Gehiengoak aldeko boza adierazten du. Ez dute bozkutzen: Hiriart-Urruty eta Aïçaguerre Andereek, Bacardatz eta Michelena Jaunek.

13 – Bideen largatzea: inkesta publikoaren ondoko erabakiak.

Bardin jaunak, axuant ordezkariak, azpimarratzen du 2014ko abenduaren 15eko deliberoaren arabera, Herriko Kontseiluak erabaki zuela euro sinbolikoaren truke lursail batzuen eskuratzea eta horien jabego publikoan sartzea.

Lehen dosierra: Harriondoa/ Camp de César bidea. RIGAUD jaun-andereak

RIGAUD jaun-andereek euro sinbolikoaren truke orotara 576 metro karratuko zabalera duten AI 111, 112, 114 eta 116 lur peza kadastratuak uzten dituztela. Uzte hori aitzinetik pentsatua izan zen RIGAUD jaun-andereek antolakuntza baimena erdietsi zuten unean. Gaur egun, jaun-andere horiek beren ontasunak salduak dituzte, eta beren lur eremura heltzeko jabe berriak lursail horietatik pasa behar dira. Egoera konpontzera behartuak gara.

Bigarren dosierra: Chiquito karrika.

Lursail horiek uzten dituzte jabe zirenek, Chiquito karrikaren edertzeko eginak izan ziren bide lanen karietara, bidearen segurtatzeko han eta hor eginak izan ziren bide largatzeen erregulartzeko:

Lursaila	Eskuratu behar den zabalera	Jabea	Prezioa
AV 242	10 m ²	Jeu de Paume delakoaren jabekidegoa: VERONNEAU Jeanne anderea, LINKEMPER Philippe jauna eta LIENARD Agnès anderea,	Euro sinbolikoa
AV 246	1 m ²	BONNET Marie-Claude anderea	Euro sinbolikoa
AV 239, AV 240	7 m ²	MEYNIER Philippe jauna	Euro sinbolikoa
AV 244	5 m ²	GASTIGARD Jean François jauna	Euro sinbolikoa

Hirugarren dosierra: Agnianeko Borda bidea. FOUCAULT jaun-andereak.

FOUCAULT jaun-andereek, euro sinbolikoaren truke, 12 m² zabalerako BI 126 kadastratua den lursaila uzten dute, Agnianeko Borda baserrialdeko bide sartzearen largatzeko.

Inkesta publiko bat egin izan da 2015eko martxoaren 2tik 16ra. Oharpen edo eskabide izpirik ez da egin proiektuei dagokienez. Komisario inkestagileak hiru dosierretan iritzi baikor bat eman du.

Bardin jaunak Herriko Kontseiluak erabaki bat har dezan proposatzen du, lehen bi dosierretako lursailak jabego publikoan sartuak izan daitezzen eta sailkatuak, hirugarren dosierrekoa herriaren jabego pribatuan (baserrialdeko bidea), eta jaun auzapeza behar diren akta administratiboen izenpetzera baimendua izan dadin, gastuak herriaren gain direlarik.

Jaun auzapezak bozkatzea galdegiten du.

Aho batez alde bozkatu da.

14 – S.I. Txakurrak: araudien aldaketa

Jaun auzapezak Herriko Kontseiluari jakinarazten dio 2015eko otsailaren 5an hartu deliberoaren arabera Txakurrak zentroa kudeatzen duen herriarteko Sindikatuaren Kontseilu Sindikalak arautegiaren lehen artikulua aldatzea erabaki duela, Uztaritze eta Jatsuko herrien ateratzearen ondotik.

Lurralde kolektibitateen kode orokorreko 5711-1 artikulua arabera, sindikatu horren barne den kolektibitate bakoitzak araudien aldaketa hori onartu behar du.

Uztaritze eta Jatsu herrien ateratzearen ondotik, herriarteko Txakurrak Sindikatuaren arauen lehen artikulua horren aldaketaz Herriko Kontseilua bere iritzia ematea galdatzen zaio.

Devèze jaunak Herria araudi aldaketa hori onartzea bortxatua dela ohartarazten du, baina ez ote da horren aurka joaten ahal, zeren herri guziak Sindikatutik ateratzen badira, zer bilakatuko dira txakur eta gatu herratuak? Devèze jaunak aurka bozkatuko duela jakinarazten du.

Jaun auzapezak gehitzen du Uztaritzeko herriak bere zakurtegia ukan nahi izan duela Txakurrak zentroari bere urtesaria ordaintzeko partez.

Bacardatz jaunak azpimarratzen du sindikatu horri ematen den urtesaria iaz jadanik anitz emendatu zela, eta beste bi herrien ateratzearekin, oraino emendatuko dela kontsideratzen du.

Hiriart-Urruty andereak zenbaterik emendatuko den galdegiten du.

Jaun auzapezak ihardesten dio urtesariaren zenbatekoa ez dela ezaguna.

Devèze jaunak dio herri gutiago eta urtesari gehiago geldituko diren herrientzat.

Jaun auzapezak bozkatzea galdegiten du.

Alde bozkatzen du: jaun auzapezak.

Kontra bozkutzen dute: Jogleux andereak, Noblia andereak, Aizpuru andereak, Irastorza jaunak, Bacardatz jaunak, Aïçaguerre jaunak, Hiriart-Urruty jaunak, Michelena jaunak, Magis jaunak, Othatceguy andereak, Bourguet jaunak, Huguenard andereak, Larronde andereak, Despéries andereak, Lespade andereak, Deveze jaunak, M. Barbier jaunak ahalordez.

Ez dute bozkutzen: Bardin jaunak, Goytino jaunak, Lassus jaunak ahalordez, Saint Jean jaunak, Etchelecu jaunak, Jenvrin jaunak, M. Hirigoyen andereak, Pontacq andereak, Gonzalez andereak, A. Hirigoyen andereak, Dor jaunak

15 – Jaun auzapezaren erabakien berri.

Jaun auzapezak jakinarazten du lurralde kolektibitateen kode orokorreko L. 20122-22 eta L.20122-23 artikuluen arabera eta 2014ko apirilaren 7ko Herriko Kontseiluko deliberamenduaren arabera, honen berri ematen duela:

a) Lehentasunez erosteko eskubideari dagokien ezezko erabakiez, otsailaren 28tik apirilaren 2ra arte:

- Lur eremua: 2
- Etxea: 1
- Apartamendua: 3

b) Erabakiak hil herrietan kontzesio uzte eta berreskuratzeaz 2015ko otsailaren 28tik apirilaren 2ra arte:

- Kontzesio erostea 15 urterentzat: 1
- Kontzesio erostea 30 urterentzat (+hilobiak): 1
- Kontzesio erostea 30 urterentzat (+ kolunbarioak): 0
- Kontzesio erreberritzea 15 urterentzat: 0
- Kontzesio erreberritzea 30 urterentzat (hilobiak): 0
- Dohainikako lur eremuen berreskuratzea: 0

Hiriart-Urruty andereak zein diren salduak izan diren lur eremuak galdegiten du.

Jaun auzapezak ihardesten dio Espainia karrikan den lur eremu bat dela, 2830 m² zabalekoa eta 420 000 eurotan SAGECak erosi duena eta Etchegoyena kartierrean den lur eremu bat, 471m² zabalekoa eta 13 000 eurotan SARL VALEURS PLUSek saldu duena.

16 – Gainerateko aipagaiak

- Jaun auzapezak Herriko Kontseiluari jakinarazten dio Urdin Euskal Herri irratiak berrikitan sesitu duela Radio Francen barneko gatazkaz, horrek garaian 200etik 300erako lan postu kentzea aipatzen zuelarik, gaur egun 380 lan posturen kentzea aipu delarik. Radio Franceko zerbitzu publikoaz gain, Urdin Euskal Herri irratiaren ondorioak badira.

Zerbitzu publikoari atxikiak direla horrez gain, Urdin Euskal Herriko langileek, grebalari izan daitezten edo ez, hautetsiak egoera horretaz jakinean ezarri nahi dituzte, eta horrek nahi ala ez ondorioak izanen baititu, lurralde, herri eta kolektibitateentzat. Hauen hurbiltasuneko lekuko irrati papera, tokiko bizia aipatzea eta tratatzea da, izan dadin bizi politikoa, ekonomikoa, kulturala edo kirol sailekoa. Hauen ofizioa egunerokotasunean Euskal Herriaren oihartzuna izatea da.

Euskal Herriko lehen irratia da, urtero ehun partaidetzarekin. Radio Francen diren murrizketek Urdin Euskal Herri irratia partikulazki hunkitzen dute, lan tresna hau lanjerrean jarritz.

Urdin Euskal Herri irratia herriei Radio Franceko eskualdeko ordezkari den Gabriel Valdisseriri eta Radio Franceko lehendakari den Mathieu Galleti idaztea gomendatzen die.

Jaun auzapezak Herriko Kontseiluari proposatzen dio urraspide horren sustengatzea eta mozio baten hartzea botere publikoen arretaren pizteko, besteak beste Radio Franceko lehendakari eta eskualdeko ordezkariarena, bai eta Fleur Pellerin Kultur Ministro anderearena, France Bleu Pays basquen gainean den mehatxua azpimarratuz. Aho batez onartua.

- Hiriart-Urruty andereak, bere taldearen izenean gehiengoari proposamen bat egin nahi lioke. Ikerketa bat egin izan dadin iradokitzen du, herriko etxearengandik kanboarrei mutualitate bat proposatzeko xedeaz, orain aitzin herritan egiten den bezala. Gehiengoak gai horretaz zerbait gogoeta eraman duenez galdegiten du. Afera sozialen lan taldean gai hau aipatu zuela dio. Herriko Etxeak gela batzuk badituela bakarrik jendearen zerbitzurako azpimarratzen du.

Jaun auzapezak gai hori laster aipatua izan zela ohartarazten du, baina jakin gabe legezkoa zenez. Argibideak harturik, eta jakinez posible dela, gehiengoak gai hori berraztertzen ahaliko luke.

Hiriart-Urruty andereak gehitzen du: «bai eta afera sozialen lantaldeak».

Jaun auzapezak gehiengoak eta gero afera sozialen lantaldeak gai hori aztertuko duela zehazten du.

Hiriart-Urruty andereak ohartarazten du laster egin behar dela, kontratuen indargabetzeak iraila, urrian egin behar baitira eta urraspideak oraindanik hasi beharko litezke.

Devèze jaunak dio arazo bakarra urraspide hori legezkoa izatea zela.

Etcheleku jaunak ohartarazten du aktore pribatuek dutela beren burua proposatzen esparru hortan.

Dor jaunak dio mundu guzian ados dela prezio apaleko mutualitate baten ukaiteko. Egitasmo horren jatorriaz bere buruari galdezka ari da, bai eta interes pribatuak ba ote diren. Esparru publiko batez baliatzen dira beren mutualitate proiektua pasarazteko, harentzat hori kezagarria delarik.

Hiriart-Urruty andereak dio ez dela hor ezertan kezkatzekorik. Jende anitzek ez dute mutualitaterik, karioegi delako. Beste herri batzuk engaiatu dira eta arazorik ez dute.

Devèze jaunak berriz zehazten du gehiengoa ez dela kontra, neurri hori lege esparru batean sartzen bada.

- Bacardatz jaunak dio, Paskalekuko pilota plazako obrei dagokionez, pilota zeingehiagoka dela eta, sare bat ezarri beharra dela, baita lotura elektriko bat eta dutxa batzuk ere. Izen emateak hasiak dira eta obrak eginak direnez galdegiten du.

Jaun auzapezak ihardesten dio zerbitzu teknikoak ohartu direla uste baino obra gehiago bazela egiteko. Murrua osoki konpontzea beharrezkoa da. Sare berri baten ezartzea murru andeatu baten gainean zaila da. Kostua anitzez handiagoa da.

Bacardatz jaunak ohartarazten du galdea irailaz geroztik egina izan zela eta damugarri atzematen du zeingehiagokaren antolatzaileek ez baitute beste aterabide baten aurkitzeko ahalik. Erantzun bat eman beharko zitzaien.

Jaun auzapezak ihardesten dio diru arrazoin batzuegatik ez dela segidarik eman. Aurten, lehentasuna herriko plazaren arraberritza eman izan zaio.

Bacardatz jaunak azpimarratzen du galdea batzordean egina izan zela, horrek zuelarik jaun auzapeza jakinean ezarri, batzordeak ez baitu erabakirik hartzen. Erantzun bat eman beharko zen. Ez bazuen galdea pausatu, ez zuen erantzunik ukanen. Galderarik pausatu ez bazuen, ez zuela erantzunik ematen ahalko.

Bacardatz jaunak gehitzen du 2015eko apirilaren 10ean bi hizkuntzetan galdera bat igorria izan zaiola.

Jaun auzapezak azpimarratzen du gaurko egunean ez duela gutun horren berri ukan. Eskuratu bezain laster, erantzunen dio.

Devèze jaunak ohartarazten du batzordea joan den abenduan bildu zenean, 2015 urteko aurrekontua jadanik kasik hetsia zela.

Aiçaguerre andereak ohartarazten du galde horiek animazioak – gazteak eta bestak lantaldearen bildumetan agertzen zirela.

Lespade andereak azpimarratzen du joan den irailean obra horien egitea baieztatu zela, baina geroztik ez dela posible.

Jaun auzapezak dio ikusiz obren hedadura ondorio baikor batentzat, ez direla aurten egiten ahalko. Hori ez zen aurrekontu norabideetan aurreikusirik. Hautu bat da.

Hiriart-Urruty andereak dio arrapostu ezaz dela erreportxu egin. Pascale Lespade, batzordeko lehendakariordeak, erabakia transmititzen ahalko zuen.

Jaun auzapezak gehitzen du aurrekontu norabideen garaian beharko zutela zerbait erran, ikusiz gastua ez zela barne.

Aiçaguerre andereak obra horiek ez dituztenez herriko langileek egiten ahal galdegiten du.

Jaun auzapezak ezetz ihardesten dio. Azpimarratzen du zerbitzu teknikoek gomendatzen dutela sarerik ez ezartzea, murru hortan konponketa sakonagoak egin baino lehen. Baina horiek hola, pilota plazaren arraberritzearen zenbatze zuzena ukaitea komeni litzateke, ikusteko gastu hori ondoko urteko aurrekontuan sartuko denez.

- Etchelecu jaunak oroitarazten du elebitasunaren menperatzearen aitzinamendu eta hobetze plan urraspide bat hastea erabakia izan zela, eta herriko erabiltzaileentzat euskarazko zerbitzu batzuetarako heltzeko ahalbidea eta euskarari buruz herriaren autonomoago bilakatzea. Euskararen Erakunde Publikoak bai eta Errobi Herri Elkargoaren euskara

teknikariak proposatzen duten urraspidea diagnostiko urraspide batekin hasten da, martxoan bultzatua izan zena zerbitzu arduradun buruekin iragan zen bilkura baten ondotik. Gero bi teknikariek herriko zerbitzu bakoitzeko arduradunak bakarka ikusi zituzten, eta diagnostiko lana CCASekin egiten ari da orain; laster aisialdi zentroarekin bideratuko da. Diagnostiko lan horren ondorioz, herria zertan den jakitea garrantzitsua izanen da eta aitzinamendu plan bat proposatuko da formakuntza sail batekin, bai eta dokumentuen itzulpen sail batekin, seinaleetika sail batekin, eta memento hortan Herriko Kontseilua deliberatzera gomitatua izanen da.

Jaun auzapezak Herriko Kontseilua dossier horren aitzinatzeez jakinean atxikia izan dadin interesgarria dela dio.

Bilkurari 23;30 orenetan bururapena eman zaio.